

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

2023/2024 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak emateko oinarriak

2024ko abuztuaren 14an egindako bilkura berezian, onespena eman zitzaizen 2023-2024 ikasturtean euskara ikasteko laguntzen deialdia arautzen duten oinarriei.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorak jasotakoarekin, aipatutako oinarriak argitaratzen dira.

1. artikulua. Deialdiaren helburua eta xedea

Bekak ematea 2023ko urria-2024ko iraila ikasturtean euskara ikasketak, udako ikastaroak eta barnetegiak barne, egiten laguntzeko. (Ez dira diruz lagunduko joan-etorrien gastuak, ez eta mantenu eta ostatu gastuak ere, barnetegiaren kasuan).

2. artikulua. Onuradunak

1. Laguntzen onuradun izango dira ikasturte hasieran, ikasturtean zehar eta amaieran Lagrango udalerrian errolatuta dauden pertsona fisikoak eta langileak edo egoitza soziala udalerrian duen erakunde edo enpresaren batean lanean ari direnak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Izena ematean 16 urte beteta edukitzea.

b) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako edo eskualdeko erakunde publikoren batek antolatutako zentro eta ikastaroren batean matrikulatuta egotea.

c) Eskolen ehuneko 75era edo gehiagora joan izana egiaztatzea edo matrikulatuta egon den ikastaroa (edo ikastaroak) gainditzea.

d) Ordainketak egunean izatea Lagrango Udalean.

2. Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorak 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako egoeraren batean daudenak.

3. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

2024rako aurrekontuko zuzkidura 1.000,00 eurokoa da, eta aurrekontu aplikazioa 335.227.040.

4. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa eta dirulaguntzak emateko irizpideak

Zenbatekoa emateko, kontuan hartuko da 1.000,00 euroko aurrekontu kredituaren muga.

Baldin eta eskaeren kopurua eta eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoa direla-eta dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak txikitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, txikitzea proportzioan ezarriko da, eskaera guztiak kontuan hartuta.

Edonola ere, beka ezin izango da 500,00 eurotik gorakoa izan eskatzaileko eta urteko.

Bekaren zenbatekoa matrikula kostuaren ehuneko 75 izan ahal izango da gehienez, baldin eta kopuru horrek ez badu gainditzen araudiak ezarritako gehieneko kopurua. Gehiago bada, ezarritako gehieneko zenbatekoa jasoko du.

Eskatzaileak matrikularen ehuneko 100 jasoko du, betiere matrikula horrek araudian ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen ez badu, langabezian egon, lanaldi partzialak izan, 25 urtetik beherakoa izan edo ikasle ofiziala izanez gero. Gehiago bada, ezarritako gehieneko zenbatekoa jasoko du.

5. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren agiriak aurkeztu behar dituzte:

a) Eskaera orria

b) NANaren fotokopia.

c) Euskaltegiaren agiria, ikastaroaren ezaugarriak (hasiera eta amaiera egunak, asistentziari buruzko datuak, aprobetxamendua...) jasotzen dituena Ikastaroa barnetegiren batean eginez gero, euskaltegiaren ziurtagiria, gastuak banakatuta dituena: irakaskuntzakoak alde batetik, eta mantenukoak eta ostatukoak bestetik.

d) Banku erakundeak emandako egiaztagiria, matrikula ordaindu dela eta ordaintzailea eta hartzailea jasotzen dituena.

e) Langabezian egonez gero, egoera horretan egon den aldia egiaztatzen duen agiria. Ikasketa ofizialak egiten arituz gero, ikastetxearen egiaztagiria. Kontratua lanaldiaren ehuneko 40 baino gutxiagokoa bada, hori egiaztatzen duen lan bizitza.

f) Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa egiaztatzen duen dokumentua Edo beste laguntza batzuk eskatu izanaren egiaztagiria.

g) Eskatzailea Gizarte Segurantzako betebeharretan eta zerga betebeharretan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria. Halakorik ezean, zerga betebeharretan egunean dagoela adierazten duen zinpeko adierazpena aurkeztu behar da. Beharrezko iritziz gero, ziurtagiri horiek eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari.

6. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko urriaren 30ean amaituko da.

Agiriak Lagrango Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira, edo legez onartuta edozein bide baliatuko da.

Eskaerak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari eskatuko zaio 10 egun baliorduneko epean zuzentzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraituz.

7. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna

Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek lortzen dituzten beste guztiekin. Hala ere, onuradunak ezingo du guztira ikastaroaren matrikularen kostua baino gehiago jaso.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta haien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

HABEren laguntzen onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten ikasleak HABEk urtero egiten duen dirulaguntza deialdira aurkeztu beharko dira. Udalak ematen duen dirulaguntza HABEk ematen duenaren osagarri izango da.

8. artikulua. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Euskara teknikariak aztertu eta balioetsiko ditu eskaerak. Alkateak aurkeztu diren eskaeren inguruko dekretua emango du, teknikariaren txostenak zer dioten jakin ondoren.

9. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Dirulaguntza eskatzen duten pertsona eta erakunde guztiek konpromisoa hartzen dute honako hauek betetzeko: datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta 2016/679 EB Arautegian xedatutakoa.

Era berean, deialdi honetan lehiatzen diren pertsonak baimena ematen diote Lagrango Udalari aurkeztutako agiritan emandako datuak beste organismo publiko batzuetan egiaztatzeko.

Azken xedapena

Oinarri hauetan xedatzen ez denerako, udalak onetsitako dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantzan, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan araututakoari jarraituko zaio.

Lagran, 2024ko abuztuaren 21a

Alkatea

URTZI GAINZARAIN GONZALEZ DE DURANA